




AGIPASEren helburua familiari laguntzea da, bai ohiko familia tradizionalei bai sortzen ari diren familia eredu berriei, hauen beharretara egokituz, beren eskubideak zainduz, eta laguntza soziala, juridikoa eta psikologikoa eskainiz, horrela beren familia-gatazkak konponbidean jar ditzaten.

01 AGIPASE Elkartearekin solasean:

- Zure familia izozki batekin alderatu beharko bazenu... zer zaporetakoa dela esango zenuke?
- Ba lehen, bola bakarreko izozkia zen, txokolatea eta menta nahastuta.
- Ah, bai? Eta orain?
- Orain, bi bolazko izozkia da. Alde batetik txokolatea eta beste aldetik menta.
- Bai goxoa zure familia!
- Bai! Ikaragarri gustatzen zait txokolatea eta izugarri menta!



02 EREDU BAT

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Ainhoa Agirreazaldegí Rekondo

Ahotsak: Joanes Echeveste, Dánae Riaño,
Maria Redondo eta Ander Lacalle

Familian sortu dira
galderak eta dudak
beraz, hobe sortzen badugu
beste eredu bat.

Korapiloak askatu
eta bidea zelaitu
goxo dagoen bihotzak
beti hobeto maite baitu.

Familian sortu dira
galderak eta dudak
beraz, hobe sortzen badugu
beste eredu bat.

Zaintzen nauten bi guraso,
lau beso ta lau belarri,
bi bihotz, bi irribarre
ni ez naiz maitasun-egarri.

Familian sortu dira
galderak eta dudak
beraz, hobe sortzen badugu
beste eredu bat. (BIS)